

Eskontzea.

Eguenean ezkondu zan, Felisa Oñarte-etxebaia, Bekobasokoa, Bilbotar bategaz. Zorionak.

S.

Metxika-Erigoiti.

Agur, EKIN'eko idazle gustijoi! Zeuen lagun, gaugandik izan nai neuke; baña gastetxua naz-ta zeuen itzalpian jafi nai dot. Azalduta dago, ba, nire efakuntzak zuek zuzendu biarko dozuezala.

Jaupa.

Aspalditxuan geure neskatilok gustiz ederto mezia abestuten doskue, bertoko organistak lagunduta. Zorionak eurai. Entzun dot, bafiz, gure jauparijaren gurarija efi gustijak mezia abestutia dala. Nok gustijai abots baten abestu eragin? Zuzen-lari bikañak biarko dira ekafi.

Gexorik

aurkitzen da Goikoetxe'ko Feliziana, Fruniz ta Luno'ko txanburuen ama. Laster osatzia nai geunke.

Uartxo bat «Ufexindora»ri.

¡Eup! Non bizi az? Ire abotsa gure aldeko abotsa dok. Baña abija? Mutil azkartzat, abija bila, egonok, baña ik engañau nok. Beintzat gure aldian ez dok izan biar eure abija. Euzotikoa ba'az, itandu egik Txomin-txu abija-bilatzailegaitik, elkar aitu gaitzean EKIN'era izpar ugarijak bialtze.

BIZKAIGAN

Ederto esana, Bizkaigan. Ondo etofia ta jafai teti aufera.

GORUNTZ - GAYAK

Eunak, bale-bizafak, zumitz ugaf-gaitzak

Zubiri'far Bingen

Artekaie, 50 BILBAO

Ondañoa.**Antzerti.**

Datofen igande gabez antzerki-jai eder bat egingo da batzokijan.

Egiguren'dar Kepa antzezleri ya-yuak «Izkiña Mutriku'n» bakar-izketa ifitsua edestuko dau ta ondoren Garritonandia zanaren «Ongilearen sarija» antzertuko da, banaketa onexegaz:

«Ines»..... Ariola'tar Eruperta
«Joxepa»..... Ufesi'tar Ane
«Karme»..... Arantzamendi'tar Miren
«Ixidor»..... Agife'tar Jabier
«Imanol»..... Egiguren'dar Kepa
«Apaiza»..... Ufesi'tar Josu
«Sendagitea»..... Ufuzuno'tar Laurentzi
«Eramun»..... Badiola'tar Koikili
«Mofoia»..... Eferterria'tar Edorta

Euzkel ixenak.

Ufesi'tar Pantzeka ta Itufiotz'tar Karme'k seintxu bategaz ugariñu dabe euren sendija ta, euzkaltzale zintzo ta abertzale sutsuak diranez, Gaijka, Sabin, Eustaki ixenakaz ugutzau dabe. Zorionak.

Diñue...

...Aspaldijan gure efitik izkiñ (soplón) asko juaten dirala Bilbao alde-rantz.

...Oneik entxufen baten bila dabil-tz:zala.

Oroen nagusi txoriburu bat da-biñela.

Txori-buru oneri abertzaliak buru-auste lafegi damotsela.

Euzko - azkatasun gogarketak be beruzkotan ipinten dabela.

Orduban Hurdes'en bixitzea naya-go leukela.

Ara juango ba'litz zoztor bat gitxi-jago izango gendukela.

Hurdes'era barik Pekin'era juango balitz sutsubago eskartuko geunski-jola.

Udal-etxian goratzen dan euzko ikufiñak be buruko miñ aundija damo-tzola.

Egun baten udal-etxian sartu zala, ikufiñak neurtuten,

Erkalarena txikijagua zala.

Au dala ta 500 laurlekoko zigofa lepaldu gura izan dautsola endoriari.

Baña zendoriak ortzak erakutsi ta adafa jo-dautsola.

Txori-buru oferi bere ixenak be zeregiñ asko damotsela.

Lenguan ordez ixen «clasico» ta «laico» bat nayago leukela.

Gure aldetik «buruariñ», «aspjian-tzale», «etxekalte», «gixajo» edo antzokoren bat ipiñiko geunkijola.

Ta oneik baño «clasico» ta «laico» agorik ezin leikezala idoro.

Ta besten baten umorerik ba'dago jafaituko dogula.

GURUTZ

Eleiz - Janzi ta urregintza**A. Rui-Wamba**

Eleizak jasteko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke

Plaza Nueva, 10 Ufutzikiña 14.238 BILBAO

Otxandijo.**Mekoletako auso-ikastola.**

Datofen astian egingo da zabal-kundie.

Dana dago gertu, bakar-bakafik, ixentetako dago Irakas'ia. Bizkayan daguen irakastola politena da. Mekoletafak bai dagoz gustiz afoik. Ikus'ola, bitxabala afian, laster kare-tokije, ta geruago arto berdie gordetako tokijek, negu gogofien aberientzako jana ugeri eukiteko.

Oletako bitxabala.

Datofen astian esiko dire lanien bitxabal onetan. Badago premiñie, ba lan barik askotxo aurkitzen dira efi onetan.

Lugin arazuak.

Esne batzafekuek euki eben igandian jan-aldi bat, artezkarijak ofseñakin. Lenengo goxian batzafa egin eben ta lengo urteko gora-berak ikusijaz erabagi eben, euneko ogei zabaltzia ilonen ogeta bederatzji gafenian, batzar nausija egiñaz batian. Baite gogo andija erakutsi eben al-kartasun bat-batian gogor egin bier dala, iñori bafe egiten itxi barik. Olantxe jafaitu; danok batute, ta lugiña bakar-bakafik dago alkartu barik; danok bat egin eskero nua nai juen leike.

Udalen aldakuntza.

Datofen asteruntz bost ziñegotzik urten bier dabe, gelditurik lau. Eurok, bestiek lez, gustiz onak direz, ta us-te du jafaituko dabela, astu barik bestiekin erabatia gertaute daguezan lanai, batez be lugintzako ondo diren kare-toki, arta berdie gordetako tokijek egitie, ta baite langiliak eskatute daukien Irakastolak egitie be ta enparau beste efi gustijai ondo jatorkezan gora-berak, zintzo ta zoli. Badago premiñie, lelokerija barik, lana egin, ondo egiten dana betik agertuko da, agertzen dan lez.

URIGOIKO

Eunak eta soñeko esliñak**Zeara'tar Erupin**

Cenderia 15 Bilbao

Ispaster.**Nazkaldia.**

Gabon jayak emen igaro ondoren Bilboratu dira Leturia'tar Pilare eta Agife'tar Modeste neskatila liranak. Ondo ibili eta asko ikasi.

Jayotza.

Madarieta'tar Bonipagi'ke ta Goletebelia'tar Kasimire senar-emasteak alabatxu bat izan dabe. Baita Malax

-etxebaia'tar Joseba Mirenan emaz-teak be umetxu bat izan dau. Zorionak.

Urteko gora berak.

Igaro dan urtian jayo dira emen 20 umetxu; il diranak 6; ezkontzak 2.

Urte bafi eguna.

Urte bafiz ainbat ume ibili ziran etxerik-etxe sari bila, eta urtero legez abesti au abestuten eben:

Urte bafi-bafi

txafi belafi
Daukonak eztaukonari
Imilaun arto ta gari.
Agin zafak bota
Bafijak ekafi,
Afilondo afillondo
Aketa bost kuarto
Zinko konpañia
Emen gatoz lau;
Kanpa joten bi,
Eskian beste bi,
Emon egizu limosnia
Jaungoikuagaitik
¡Eup!

Bidiak konponduten.

Azpaldi onetan txafi ta zezin asko il dira emen eta murtziñ jokoak ere ugari; alan da ze naiku odolezte eta urdai azpiko janda, emengo gizonak gustiz sendotuta asi dira bidiak konponduten eta ez edozelan, edozein bide bafi baño obeto. Ia ba Ispaster-fak aufera zeuen lanean! Ipiñi geure uriko basefiak txaidiak baño obeto. Danok be konpondu beafean dagoz. ¡Bakotzak berenak! ¡Aufera Lafinaga'tafok eta Kortazar'tafok!

AGARETXU'KO LOREA

GARATE**Sendañiea**

Jai-egunetan 10'tatik 12'arte
DURANGO'n Goienkale 2

Abadiño.**Jaz-ban.**

Aurten be beste urteetan lez, jaz-ban eta auspuok badabiz loikeri ta zikinkeria eraiten. Kistar eta abertzale zintzoak, onetariko jolasak biotzez gofotau bear dituez, Kistoren lege ta oitara garbiak zaindu nai badabez. Jolasok Jaunaren zigofa leporatuteko obak dira kentzeko baño.

Astronomietzaz.

Kistobal Gaztelu'ko izafetzaz berak aitzen dabena esateko, gertu ei-dago. Balendin Gantzako'k eta Serapio'k be, bardin diñue. Oraingoan lugiñok pozik egon bear dozue, onen-beste egualdi igartzalegaz artook be sasoi onean eraingo dozuez-da. Ez estutu ta lafi aldirik ez igaro. Oneik egualdi ona iragarten badabe, alan izango da-ta. Eta, trumoyak yoten badau? Soloan etxeratu barik egon. Bestela egualdi ona iragafi ta txafa egiten badau, oneinak egin dau.

Intxaldeko

Ermenejildo'k Txomin txopafari esan ei-dautso, Mendiolako bide bafien asierak berak be belbilean (automobilian) yoan bear dabela; nai ta ez. Bilbotin, Perez Madrigal eta beste eskertafok ba-datoz, berak bolantea artu ta txifinkapean austuko dituala. Txomin'ek diño, onen adoreko gizona beafekoa dogula, zerbait yasoan be. Gero Ermenejildo zantzoak kontuz zuzen ta bakez yoan gaitzean bide oferi asiera ona emoten.

Mendiola'ko

bide bafia oso ederto egiten dabe. Muntzaraz'tafak gogotsu diardue lanean. Gazteluafak bafiz, eurentzako aldia noiz elduko ete dan itanduten dagoz. Itxaron spur bat, zuen aldia be lester da ta.

Antzerkiak.

Batzokian gizozte andia batuta «Gixon bikaiñak» eta «Melitonaren

senar biak» igaro dan igandean antzeztu ebezan. Uriguen'tar Gotzon, Bastefetxea'tar Ezekel, Befojalbiz'tar Koldobika ta Andoni, anayak, Ezkubi'tar Pantzeka eta Bastefetxea'tar Jagoba'k oso ederto egin ei ebezan. Ekin mutilak, Euzkerea be olantxe ikasten dot-eta.

Gogo-ikarkunak

egiteko asmuz Befojalbiz'tar Dominika, San Agustin Etxebafia'tar Isidra, Urien'tar Felisa, Afazola'tar Amalia, Uriarte'tar Marzedes, Ania'tar Meltxora, Mondragon'tar Juanita, Arteaga'tar Ines, Garcia'tar Benigna ta Gaztañazatofe'tar Maria Bilbo'ko Efeaparadoretara yoan dira.

TRANA

Mañari.**Andoni deuna.**

«San Anton» egunaz, emeko Kurutze-Santu ermitan, Andoni deuna'ren aldaran, goxeko saspiretan, mesa abestu bat emon zan; eta ainbat lagun bertaratu zan.

Bafa egun ofetan, Urkiola'ra be ainbat lagun juan ziran, eguraldi txafa ixan zan afen; gastiak batez be. Eta juan ziranak diñoenez, ango deunetxian, sekuleko eleizkixun edefak ospatu ziran.

Juan-Etorijak.

Igandian juan zan Sabin Etxia'n ospatu zan batzafara, Oletza'tar Mikel emeko U. B. B.'ko lendakarija.

Eibar'era juan zan Sarobe'tar Pausta mutila. Asua'tik etofi zan, bere ama ikertuteko, Afizabalaga'tar Igone neskatila.

Igandian agurtu gebazan emen Lasuen'dar Agate ta Agurtzane neskatil abertzaliak.

Eguraldija.

Otza daukagu. Egunontan, edufa be polito jausten da atxetan. Artzain gixejak be, euren artaldiakaz mendija bera abijau dira. Onan jafai bada, piztijak be eufez jatsiko dira, etxe-ingurubetara. Gosiak eztau parkatzen-eta.

MAÑARIKO

Elantxobe.**EKIN zabalduaz,**

geituz do'ala jakitiak, benetan pozutzen gaitu; gatza ta mamiña, guna ta jasa beragaz dituzan ezkerro, Galizijako Carcubio'nen, eta Belgica'ko Marneff'n irakurliak dituzalako ez gara afitu. Euzkeldunen onerako jayo zan, eta urte luzietan, sendotuz iraungo al dau, euzkeldunen esku ta bijotzetan. Guk ez deuntsagu eragozpenik ipiñi gura.

Orexegaitik,

gure izpafak diriala bide, efiko batzuk EKIN izteko uztia daukela entzun dogun ezkerro, Artezkari jaunak, ontzat artun dayela, gure asmu au, ta EKIN'en omenez, geu ixildu ta ilgo gara. Izan dayela EKIN, gure bafiketa barik, Elantxobe'n, onaratzua. Ez garabiltzaz asafiak, ez gagoz minduta, EKIN eta Elantxobe, goitik ikusi gura-doguz. Gure jarduna gurari ofen kaltefafi bada, agur, efitar maitiak, agur EKIN'eko, irakurle begikuak. Betiko edo zeuk gura dozuen arte, bagoiaz gu, otzan-otzan, efeka ertzeko lili artera. Itxasoruntz diran ur ezlijen abesti ixil samufa entzungo dogu. Agur.

Idaztekotan,

azkatasun ta eskubide osuak gura doguz. Baia badira, dirudijenez, gure efijan, euren eretxijak, eurak bakafik agertuteko eskubidia daukela uzte dabenak. Bestiak, ez eretxirik ez eskubiderik. Bestiak anpor, kontixu, nai gaituez.

Adizkidia,

(bai, adizkide zaituguz, zeuk gura ezipazerdutkie be ta) Adizkidia,

maitasunez, edo maitasun efukiz adizkidia jez al daukagu guk efija maite izateko eskubiderik? Zeuen artian bizi gara, baia, ori gura badozue, ez dogu, zeuek gura dozuen artian, EKIN'etik bururik agertuko. Pozik zagoze? Tire ba. Zeuek be, guk lez efija maite badozue, ixilik egongo gara. Ostantzian, al dogun tokitik atarako dogu burua. Baia guk koitadok baño indar geyago daukezuelako, nun idatzi ez bagenduke, jakin ondixik zer esango dogun: Gure adizkide maitiak, gero ta gero be, jauntxu biurtu jakuzala.

«Argi ta garbi»

lan egin biar dogula, iñoskun azkenengo EKIN'en, «Gama» dan idazle ospetzuak. Ofetan gagoz geu be. Guzufari itzal (efespetu) ta begirune (consideración) lafegi dotsagularako, artun oi dau daukon indar zantafa. Alan da guzti be «nun biar egiten dogun, eta nori irakasten dotsagun begiratu» gendualako, argi ta garbi barik, ilun ta motel idatzi genduan. Baia ez utzian. An eguzan gure zijuak. Asmo ilunak oste-ra, antxiñatik, egirik artun nai ez da, asmau eban, egijen inguruko atxaki dantza zar-zafa.

Txakurak, baia zintzuak.

Nunbait irakufi genduan jazoera au. Gizon batek txakur bat eukan. Gustiz zintzua zalako, maite-maite eban. Bein baten gizon ofek, albo-efi batera urten eban zaldi ganian. Atzetik johan txakurak, bera jausi zan gauza baten zaratia entzun ebaneko atzera egin eban, ta lufari uzainka-uzainka eldu zan an beian jauzita eguanaño. Ugezabak maite ebana bazan. Abijada baten eltzen da zaldijagana, ta asten da ito bafian zaunka ta zaunka, zaldijen aurian. Alperik, ugazaba aufera. Zaldijari, papar ta belauñetan ainka bigunak... be alpefik. Ugezaba pizkatxu bat afitu zan, baia aufera. Orduan txakur gixajua miña atarata, etenda egon afen, salto ikaragarrijakaz, ugezabari teinkaka asi jakon. Ugezaba mindu zan. ¡Nire txakur zintzua, galdu jat, amufatu jako, eta il biar dot! Atara eban su-izkilua, ta sartun eutsazan tiro batzuk, eta txakufa il-ten ez ikustiafen, len baño bizkofago alde eban.

Txakur zauritua,

burua makur, begiak ilun, ixil-ixilik erijotzako otz-ikariagaz dar-dar odola darijola, bide guztia buztijaz eltzen da ugezabari jausi jakon gauzia eguan tokira, eta azkanengo ordurano zintsua izan zan txakufa, ugazabaren aberaztasunen ganian etzunda il zan. Zeregiñak eginda etxeruntz etofela, odol moltzuen ufengo, bide egaltxuan aurkitu eban txakufa ilda. An ez eguala ondo ta, zugazpe baten sartzeko asmuagaz oratu eutsanian, afituta ikusi eban, miñaka laurlekoz beteta eguan beren sakela edo karteria jagoten il jakola ¡txakur zintzua! Aren zaunkak, aren ainkadak, aren zapartak, sakela galdu jakola adierazoteko izan zirian, eta berak... eskar onez, tiro batzukaz il eban. Ugezabaren atsekabia neufi bakua izan zan.

Guri be,

ortik, (nortzuk ez dakigu ta jakiteko alegiñik be ez dogu egingo) galtzeko zorijan eguan euzkel sakeien bila dei batzuk egin doguzalako, edefak esan ei deuskuez. Geuk irabasi badoguz tiruok, ondo dagoz, baia guk, euzkotafen aberastasunen ganian, siñismen eta oitara garbijetan etzunda il gura dogu. Zuek efitar maitiak...?

Ixilian egon

gura daben neskatila batek A. Pro'ren bizitza afigefi ta polita, gure idazlittegirako biñdu deusku: Bijotz gogofak bigundu, epelak sutu, ta sutuak eten bako langile blurtuteko egokijagorik gitsi Eskefak.